

Antonio Zavala, euskaltzaina

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Nagusia, Kultura
Diputatua eta Euskara Zuzendaria
Tolosako alkatea eta zinegotziak,
Antonio Zavalaren senideak,
euskaltzainkideak,
tolosarrak,

Arratsalde on.

Egia esan, omenaldi honetan Antonio Zavala euskaltzaina aipatzea zegokidala jakin nuenean, berehala etorri zitzaidan burura haren irudia Urnietako udaletxean, aita Plazido Mujika lexikografo jesuitari Euskaltzaindiak egin zion omenaldiaren egunean, bi mila eta seigarren urteko martxoaren hogeita zazpian.

Zer irudi zen, ordea, Aita Zavalarena Euskaltzaindian? Niri dagokidan aldetik, argi esan dezadan irudi gazi-gozoa zela. Gozoa gutariko askorentzat, ikusirik Aita Zavalak betidanik maite zuen herri literatura aintzat hartzen zuela Euskararen Akademiak. Gazia, oster, hainbat alditan, Zavalak bultzaturiko ekimenak kontuan hartu ez edo behar besteko jarraipena eman ez zitzaielako horiei.

Urnietan eman nizkion, hain zuzen ere, Arrue euskaltzainaren libururako lehen materialak, berak bildu eta urteetan gordetako karpeta horretan zeudenak, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak word sistemara alderatuta.

Material horiek dira, izan ere, egun liburu erakusgarria osatzen dutenak, aita Zavalak eginiko hitzaurre ederrarekin. Liburu hau aurkeztu dugu berrikitan Donostian, aita Zavalak Euskaltzaindiari egin zion azken ekarpena.

Liburu horren barruan, bistan denez, aita Zavalarekin lagun miretsia eta maitatua izan zena, Antonio Arrue euskaltzaina.

Aurre eta Zavala, Zavala eta Arrue, biek ahala biek ematen didate aukera, akademietan ohiko izaten diren kontuak zuen aurrean aipatzeko, hau da, Akademian noiz sartu, zer-nolako ibilbidea egin eta abarrekoak.

Antonio Zavalari buruz Euskaltzaindian dagoen karpeta lodian, honako hau irakurtzen da haren fitxan: euskaltzain laguntzaile izendatua izan zen, mila bederatziehun eta hirurogeita batgarren urteko abuztuaren hogeita bostean, eta euskaltzain oso, mila bederatziehun eta hirurogeita laugarren urteko abenduaren hemezortzian.

Batez beste, ibilbide luzea izan du Antonio Zavala euskaltzainak euskararen Akademian, bi mila eta seigarren urteko uztailaren hogeian euskaltzain emeritu ere izendatu zuela Euskaltzaindiak.

Nondik norako jarraitu horren barruan, jakina, emaitza harrigarriak, herri literaturaren esparruan, kalitatez nahiz kopuruz. Ez naiz horretan luzatuko, beste batzuek egoki eta zehatzago plazaratu baitizkigute xehetasun horiek.

Hitz egin dezadan, nire aldetik, osterantzeko puntuak agerian jarritz eta bizpahiru ardatz nagusi gogoratuz:

a.- Lehen-lehena, Euskaltzaindiaren zereginetan izan zuen parte-hartzea. Parte-hartze zabala eta ugaria, hainbat biltzar eta jardunalditan mamitu eta ondu zuena. Ez horrenbeste, Euskaltzaindiaren argitalpenetan, nahiz eta artikulu esanguratsu batzuk Akademiaren agerkarira bertaratu. Herri literaturaren alorra izan da Aita Zavalaren eremua Euskaltzaindian, eta Herri literatura batzordea, haren jardun-lekua eta irakasbidea, egun batzorde horren kide (eta adiskide) baitira haren lanari segida ederra ematen diotenak.

b.- Euskaltzaindiaren norabideetan Aita Zavalak egin zituen ekarpenak. Has nadin antzinatik. Jar dezagun gure burua gaur urrun ikusten dugun mila bederatziehun eta berrogeita

hamaseigarren urtean, eta joan gaitezen Arantzazura. Hizlari, Aita Zavala. Hitzak, hauexek:

Mas si atendemos a la fuente de donde mana todo este reguero, encontramos que el creador de esta auténtica literatura es el estrato social que comúnmente no pasa hoy de ser productor de folklore, y en consecuencia y en contra del veredicto de tantos prohombres, que el nuestro es quizá el pueblo más literato de Europa y aún del mundo.

Otras lenguas no hacen literatas sino a las clases cultas; nuestro viejo euskera convierte en literatos a los hombres sin cultura. Nunca tendremos capacidad de valorar el tesoro de humanidad y espíritu que entraña un idioma que hace de los analfabetos creadores de literatura.

Gatozen, alabaina, mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortzigarren urtera. Hizlari, beste behin ere, aita Zavala. Hitzak, berriz ere, esanguratsuak:

Beraz, euskal klasikoen sorta bat, liburutegi bat sortu bearra dago. Langintza ori, berriz, Euskaltzaindiaren egitekoa da, ta garai onik iñoiz izan bada, oraintxe degula dirudi...

Ezertxo argitaratzen asi aurretik, oso arretaz pentsatu bear dira liburu-sorta berriaren neurriak luze-zabalean, leengo liburu zaarrak fotolitoz argitaratzeko neurririk egokiena arkitu arte...

Ikusten dezutenez, langintza aundia, programa zabala eskeintzen det. Nik erabilitako puntu guziak ezin erabakiko dira gaurko arrasaldean bakarrik. Baiñan Euskaltzaindiak on luke bide ortatik abiatzea. Oiek baitira, nere iritzirako behintzat, Akademia baten lanak eta zer egiñak.

Bi aldi, bi testu; tenore bera, hizlari bera. Euskaltzaletasuna mila bederatziehun eta berrogeita hamaseigarren urtean, gerra osteko urte latzetan; euskaltzaletasuna mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortzigarren urtean, demokrazia-garai berrietan.

Hitzak hitz, Zavala harago doa; proiektu osoa dauka euskararentzat. Izena du horrek: *Auspoa*. Izana eta edukia: herri literatura euskaraz.

Izena eta izana horietara jarrita, Zavalak ez ditu guztiak aldeko eta suspertzaile. Bada gure artean herri literatura beheratzen duena, uste izanik, besterik gabe, idatziaren indarra dela irtenbide bakarra euskararen etorkizunerako.

Nire aburuz, ostera, ikerkuntza-lana da *Auspoaren* orrialdeetan nagusi, horrek egiten baitu Zavala maisu. Bildu ez ezik, jorratu eta apailatu ere egin du eskutik eskura eta ahoz aho ibilia, aurrerantzean paperezko sorta antolatuan izan dezan irakurle jakinguratsuak. Herri literaturaren altxorra barneratu behar du euskarak, aspalditik premiazko duen corpus adierazgarriaren bitartez. Literatura letra larrietan erreibindikatzeko denean, herri literatura ere aldarrikatu behar da, horrek egiten gaituelako, eraberekokeria guztien gainetik, hizkuntza bereizi baten partaide, hiztun eta jabekide.

Horixe idatzi nuen aurtengo urtarrilaren lehen egunetan, Jose Mari Iriondo adiskidearen deiak Antonio Zavalaren heriotza iragarri zidanean. Horrela, bat-batean, eta esku artean genuen Arrueren liburua ikusi gabe.

c.- Natorren, azkenez, hirugarren puntura, eta geroari buruz hitz egin dezadan. Zavala omentzen ari gara. Zavalaren lana, *Auspoa*, eta, oro har, herri literatura hortxe dago.

Zer egin? Euskaltzaindiari dagokionez, kontuak argi:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarkidetza sustatu, uste baitugu Zavalaren lanak merezi duela. Gogoratu behar dut Zavalak berak hala eskatuta, haren artxiboaren kopia ere Euskaltzaindiarentzat jarri zela, beste askoren artean, ni lekuko eta Pello Esnalek zuzenduriko abesbatzaren kantari xumea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian.

2.- Euskaltzaindiaren barruko lana, Herri Literaturaren batzordean. Hor landuko dugu Zavalaren oinordetza; hortxe abiaraziko dugu Zavalaren aldeko omenaldi-liburua, akademikotasuna eta adiskidetasuna estekatuko dituenak. Euskaltzainburuaren zina daukazue, lan horretan laguntzeko eta lan hori sustatzeko.

3.- Zavalak utzitako herri literaturaren altxorra. Erreibindikazio horrek eskatzen du, eskatzen dio Euskararen Akademiari, Zavalaren izena, eta, haren izenean, herri literaturaren ondarea teknika berrien bitartez ontzea. Horretan ari da Euskaltzaindia, eta, horretan ere, albiste pozgarriak izango dituzue aurki, egitasmo ondo egituratuaren bidez.

Labur-zurrean, Antonio Zavala euskaltzaina agerrarazi nahi izan dut zuen aurrean. Ez dakit lortu dudan. Badakit, ordea, nire/gure hitzen gaineratik, bera dugula gidari herri literaturaren esparruan.

Zarata eta hots handirik gabe; ekinean-ekinean, berak gustuko zuen bezalaxe. Hitz gutxitan esateko, gaur egun ugari ez diren kultura-eragile erraldoien antzera.

Horri egiten dio men Euskaltzaindiak. Bide horretan dago gure Akademia, eta aitortza osoa eman eta emango dio Antonio Zavalari, zuekin batera, gaurkoan ez eze, hurrengoetan ere.

Tolosan, 2009ko maiatzaren 22an
Andres Urrutia, euskaltzainburua